

...eta!
Kitto!

2016-X-21

989 zkia.



Menditik kalera



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA

KUDEAKETA

ADMINISTRAZIOA

30 urtetik gorako esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



JENDEA HARTZEKO
(aurrez-aurre eta telefonoz)
09:00-14:00 / 15:30-19:30

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ C.S.

Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad
iparelek S.L.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108

www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922

ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martínez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOAK
E.I.T.

info@ajttoficina.com tlf. 943 80 18 30
AJT zihurtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@crystaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F



ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELE...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

ASIER CUEVAS HERRI-LASTERKETAREN BUELTAN

IV. Asier Cuevas Herri-Lasterketa dela eta, Klub Depotiboko Atletismo Taldeak adierazi nahi dizue urriaren 22ko arratsaldeko 18.00etatik 18.40era bitartean trafiko gorabeherak izan daitezkeela Eibar-ko erdigunean.

Lasterketa Toribio Etxebarriatik hasi, Egogain kaletik igo eta Karmen, Barrena eta Barakaldo lotzen diren bidegurutzeraino joango da. Beraz,

18:00etatik 18.45era bitartean Eibar erdira datorrena Jardinetako sarreratik edo Sallabenteko biribilgunetik sartzea gomendatzen dugu. Eta, irte- teko, Sallabenteko biribilgunetik edo auzoetatik, Eibar erdia saihestuz.

Arazo horiek ulertuko dituzuelakoan, eskerrik asko.

Klub Deportiboko Atletismo Taldea

1966-KOEN EGUN ZORAGARRIA ESKERTUZ

Aurreko zapatuan 1966an jaio ginenen bazkaria eta inguruko guztia antolatu zenutenoi, eskerrik asko bihotz-bihotzez bertan izan gineno prestatu zeniguten egitarauarengatik. Bikain pasatu genuen zuei esker eta egun osoa ezin hobeto joan zen: talde-argazkia atera, pintxo-pote biak, trikitilariak jarritako giroa, Hotel Unzagako bazkaria, ondorengo

dantza, Madrildik ekarritako hiru umoregileak, elektrotzaranga, Kultun egindako sokatira eta pintxo-potea... azkenak Punto y Aparte-n eman genituen arte. Gainera, eguna gogoratzeko lepoko zapia eta giltzakoarekin etxera! Zer gehiago eskatu deza- kegu? Primeran egon zen dena! Zorionak!!

Beatriz Zabaleta

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAUKO.- Lau libranko ogia, eguneroko ogia. *"Makiñatxo bat izerdi, gizajuak laukua irabazteko".*
LAU LIBRANKO OGIXA EGIN.- Gauza bat aurrera ataratzia gaitza edo astuna dala adierazteko konparazioa. *"Holako semiak mundura ekartzia baiño lau libranko ogixa egittia be hobe dok".*

astean esanak

"Azterketa genetikoetan jatorri europarra ez dutenak bazter uzten direla ohartarazi dute *Nature*ko ikertzaileek; ikusi dutenez, jatorri europarreko parte-hartzaileen ehunekoa %81ekoa da. Eta beste jatorriren bat duten horietatik ia guztiak asiarrak dira: batez ere japoniarrak, txinatarrak, korearrak eta indiarrak. Gainerako jatorrietakoko gutxietsita jarraitzen dute: horien artean daude jatorri afrikarra dutenak, Australiako aborigenen ondorengoak, Amerikako jatorrizko biztanleen hurrengoak, Estatu Batuetako hispanoak... Ikertzaileek nabarmendu dutenez, genomari buruzko datu-baseetatik bazter

uzteak ondorio kaltegarriak ditu jatorri europarra ez duten pertsona horientzat. Izan ere, datu-base genetikoak oso baliagarriak dira gene jakinen eta gaixotasunen arteko loturak edo botikak metabolizatzean egon daitezkeen gorabeherak detektatzeko. Diru- laguntzak bestela bideratu behar dira"

(ANA GALARRAGA, ELHUJAR ZIENTZIA)

"Bankuetan bi-hiru ustel daudela esan izan da, eta beste guztia fikzioa zela. Ba nire esperientzia ez da halakoa izan. Horren guztiaren erdian izan naiz eta 'syndicate desk-en' lan egitean harreman zuzenak izan ditut bankari, bezero, saltzaileekin... Hiru kontinente desberdinetan gainera. Eta finantzetan

nagusitzen den kultura ustelkeriarena eta gehiegikeriena da. Nire bulegoan arrazismoa, sexismoa, amarruak... ikusi ditut. Eta hortik kanpo denetarik: alkoholismoa, drogaletasuna... Horko jendea errealitatekanpo bizi da eta nozioa galdu du zer dagoen ondo eta zer txarto erabakitzeko. 25 urte badituzu eta 500.000 dolar ordaintzen badizute, zure gainean dagoenak 800.000 kobratzen duela-eta izorrotuta bizi zara. Enpresari onurak ekartzeko hainbeste pizten zaituzte hori lortzeko edozer egiteko prest zaudela, informazio pribilegiatua lapurtzetik hasi eta bezero txinatar bat gonbidatzeraino Macaorako bidaia zoro batera, edozer" (JOHN LEFVRE, WALL STREET-EKO BANKARI-OHIA)



ASIER EZENARRO

Espainiako zatitxo bat?

Berealdiko baikotasuna arriskutsua da. Errealitatetik urruntzen gaitu eta ameskerietan sartu. Itxaropena, alderantziz, arrazoieta oinarrituta egon behar da, Terry Eagleton filosofoari jarraituz. EAEko hauteskundeetan lehen bi alderdiak abertzaleak izan dira. Abertzale batzuk aurrerapauso moduan ikusi dituzte emaitzok, baina 80ko hamarkadan abertzaleok eserleku gehiago genituen Gasteizko parlamentuan. Ez dut ikusten, inondik inora, gure Estatu independentea lortzera goazela esango diguten zeinu positiborik. Gure Herria hiltzen ari da, bere izaera nazionala hiltzen. Orain gutxi Joxe Azurmendi gure filosofo haundienak hau zioen: *"Ikaragarria da hemen dagoen kultur inbasioa. Bidasoa pasatu orduko ikusten dituzu Estatuak sortutako kultur-inposizioak. Nola sortu digute hori guztia? Estatuaren ahalmena hori delako, ezin garelako libratu irrati, telebista eta egunkarietako propagandatik. Ez da borondate txarrearengatik, baina gizartea erabat espainolizatuta dugu. Sentitzen dut".* Bat nator Zegamako pentsalariarekin. Herri baten autodeterminazioa eta independentzia lortzeko adimen kritikoa euki behar dugu; bestela ez dugu ezer egiterik. Gonbidatzen zaituztet zapatu batean zinemara joatera, Barakaldora, eta ikusiko duzue, milaka lagunena artean, euskara swahilia bezain arraroa dela han entzutea. Zenbat euskal gaztek ez dakite nortzuk izan diren Gotzon Garate edo Jon Mirande eta bai, aldiz, nortzuk diren Kiko Matamoros eta Isabel Pantoja? Ahalegin eta borroka haundiak egin dira urte luzeetan euskararen alde eta gure identitate nazionala babesteko, baina egi gordina onartu behar dugu: hemen bizi diren etorkin espainolen leialtasun nazionala Espainiarekin dago, euren abarriarekin. Eta euskaldunoi nahiko lan geratzen zaigu oraindik gure buruak deskolonizatzen.

II. Akademien Azokia azaruan

Eguaztenian aurkeztu eben Udalaren Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza saillak antolatu dabene Eibarko II. Akademien Azokia. Azaruaren 12xan (10:30xetatik 20:00etara) eta 13an (10:30xetatik 14:30xetara) egingo da, Untzagan, eta antolatzaillak helburu bikoitza dake: *"Azokan parte hartuko dabene enpresak herritarreri gerturatzia eta eza-gutzera emotia eta, horrekin batera, herrixan formaziñorako diltugun zentruen eskintza zabalak ikusteko aukeria emotia".* Parte hartu nahi dabenek urriaren 24tik azaruaren 4ra arte izango dau izena emoteko aukeria eta eskaeriak Pegoran aurkeztu biharko dira (eibar.eus webgunian eskaera-orrixa eta bete biharreko baldintzak eskuratu leikez).



Iaz egin zan Akademien Azokien lehelengo ediziñua. Leire

asteko
1.448
datua

lagun dagoz menpekotasun egoeran herrixan, erroldatutakuen %5'28. Hórretako 1.143 lagun 65 urtetik gorakuak dira eta, hortaz, adin tarte horretako %16'83k menpekotasunen bat daka.

EGIk Euskeriaren Planerako konpromisua eskatzen dau

Euzko Gaztedi- EGIk, EAJ-PNVren gazte erakundiak, irailian aho batez onartu zan "Eibarko Hiria. Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025" positibuan balorau dau eta, euren eritiziz, *"dokumentuak euskeriak Eibarren bizi dabene egoerari buruzko diagnostiko egokixa egitten dau eta hori bideratzeko erronka aurtartak proposatzen diltu".* Gazte jeltzaliak plana osatzeko prozesua gertutik jarraitu dabe eta, EAJren udal taldiarekin alkarlanian, euren ekarpenak helarazi diltte: *"Guk planteautako aportaziño gehixenak jaso diltte eta, hori dala eta, pozik gaoz"*, diño Iker Laka, Eibarko EGiko idazkarixak. Euskeriaren Foroan gaztien aniztasuna islatzen eta umien ikuspuntua kontuan izaten ahalegindu dira batez be. Edozelan be, kezkatuta daguazela diñue.



EGIko gaztiak hainbat ekarpen egin detsez euskeriaren planari.

Izan be, aurreko urtiotako jarrerria ikusitta, planak bere ibilibidian izango dabene babes politikua zalantzan ipintzen dabe. Horregaittik, PSOEren udal gobernuari eta alkatiari berari *"benetako konpromisua hartzeko"* dei egin nahi detse, *"euskeriari gure herrixan merezi dabene tokixa emoteko. Euskeria Eibarko agenda politikuan kokatu eta bihar diltuan bitartekuekin hornitu bihar da, eta horrek konpromiso sendua eskatzen dau".*

Nerea Del Campok jasoko dau Gure Baloioak Sarixa

Debegesa garapen agentziak urtero emoten dabean Gure Baloioak Sarixa aurten Nerea Del Campo Agirre eibartarrak jasoko dau. Sariduna indarkeria matxistaren biktimeri laguntzeko "Mujeres al Cuadrado" alkartia eratziaz ez eze, andra etorkiñak ahalduntzeko "Empalabramiento" egitasmuaren sortzaillia eta arduraduna be bada. Sarixa urriaren 27xan banatuko dabe, Soraluzeko Herriko Antzokixan, 18:30xetan eta ekitaldixan Emakundeko teknikarixa eta Gizonduz ekimenaren koordinadoria dan Ander Bergarak bardintasunaren inguruko hitzaldixa emongo dau.



Primeran 50 urtekuen jaixan

Primeran ibilli ziran aurreko zapatuan aurten 50 urte bete edo beteko dittuenak. Urtero legez talde edarra, 180 bat lagunek osatutakua alkartu zan ospakizunaren harira eta goizetik hasita umore onian ibilli ziran egun osuan zihar, gehixenak gabeko ordu txikittan sartuta etxerako bidia hartu eben arte.



Maialen Belaustegi

autuan

Bizilagunak bazkarixa

Mugak eta Sos Arrazakeriak-en eskutik Bizilagunak programia garatuko da azaruaren. Gizartekintzako Inmigrasiño sailarekin eta ...eta kitto!-ren Ongi Etorri Berbetan egitasmuarekin alkarlanian, Eibarren be bertokuak eta atzeritarrak alkartzeko bazkarixa antolatzen dihardue. Azaruaren 13an egingo da eta bazkarixa antolatu nahi dabean famelixak edota gonbidatua izan nahi dabeanak azaroaren 10era arte izango dau izena emoteko aukeria, 943200918 telefonora deittuta edo ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzitta.

1937. urtekuen jaixa

Urte horretan jaixotakua hamargarrenez ospatuko dabe euren jaixa, alkarrekin bazkalduta. Azaruaren 18xan egingo dabe bazkarixa, Unzaga Plaza hotelian eta juan nahi dabeanak 55 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 5109009115389087 kontuan (iazko bera), izen-abizenak zihezttuta.

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- | | |
|--------------------------|---------------------------------------|
| 1) Kardiologia | 11) Barne Medikuntza |
| 2) Zirugia | 12) Radiologia |
| 3) Dermatologia | 13) Urologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 14) Traumatologia |
| 5) Análisi Klinikoak | 15) Koloproktologia |
| 6) Ortodontzia | 16) Erizaintza |
| 7) Otorrinolaringologia | 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8) Pediatria | 18) Foto-depilazio |
| 9) Psikiatria | Unitatea |
| 10) Neurologia | |

english **BBIE** WHITE school
 943203197

F U N D A Y

ipuinak, eskulanak, gorogintza
 ingeles jarduerak hilero
 irabade natiiboak

Informa zaituez

larunbata 16.10.29 **10€** mugatutako plarak

Happy Halloween

4 til 7 urterako umek 10:00 etatik 12:00 etara
 8 til 11 urterako umek 12:00 etatik 14:00 etara

kale izena pertsonaiaren izana

Gure herrian dagoen kalerik nagusienak sindikalista eta idazle famatu honen izena hartzen du. **TORIBIO ETXEBARRIA** 1887ko apirilaren 27an jaio zen Eibarren, Txirio-kalean. Oso gazte hasi zen lanean eta betidanik izan zuen irakurtzeko zaletasuna. Udaletxean idazkari hasi zen eta 1920an Alfa koooperatiba eratu zuen Armeria Eskolatik irtendako lagun batzuekin. Armagintzari ekin zioten, baina 1927an josteko makinetera pasatu ziren. Sozialista eta sindikalista amorratua, II Errepublika aldarrikatu zuenatariko bat izan zen eta Prieto gobernu ordezkariak Madrilerara eraman zuen CAMPSaren zuzendari postura. Gerra ostean espetxeratu egin zuten eta, azkenean, erbesteratu beharra izan zuen. Venezuelan "Ibilarixanak" eta "Viaje por el país de los recuerdos" liburuak idatzi zituen. Bere lanik handiena "Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar" izenekoa da.

1968ko apirilaren 18an hil zen Caracasen. Eibarko Udalak Hiriko Seme Kutun izendatu zuen 1987an.

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



IRATI
COBO



Eskaparatiak apaintzeko ikastarua

Euskaraz Primeran egitasmoko dendarixendako "Eskaparateak apaintzeko modu errazak" ikastarua antolatu dau ...eta kitto! Euskara Elkar-teak. Eskaparatismo eta Visual Desing dalakuan aditua dan Idoia Lavadok emongo dau, azaruaren 7xan, 14:45etik 16:15era. Izena emoteko epia urriaren 24tik azaruaren 4ra arte egongo da zabalik (943 20 09 18 telefonora deittuta edo elkar-tea@etakitto.eus helbidera idatzitta).

Gabonak saltzailliendako sasoi berezixa izaten dirala eta, dendarixeri eskaparatiak zelan apaindu pentsatzen hastia komeni jakuela erizten detse antolatzailliak eta horregaittik antolatu dabe saia: eskapate mota desberdiñeri buruz eta bezeruak erakartzeko daken garrantzixaz egingo dabe berba eta, betiko kolorietatik (gorrixa, txurixia, urrea...) aparte, ausartaguak eta erakargarriguak izan leikiazen beste batzuk proposatuko detsez dendarixeri. Gaiñera, bakotzak saltzen dittuan artikuluekin (bakeruak, zapatak, edalontzixak, korbatak...) eskaparate erakargarrixak zelan egin erakutsiko detse.


Gripiaren kontrako txertua jubilau etxietan be

Astelehenian hasi zan 2016ko gripearen aurkako txertaketa kanpaiña eta abenduaren 17ra arte egongo da martxan. Betiko moduan, kanpaiña arrisku taldietan (65 urtetik gorakuak, gaixo kronikuak, haurdun daguazanak eta osasun arloko bihargiñak) daguazanendako bereziki pentsauta dago eta, txertua ipiñi nahi dabenak, bere osasun zentrorra juan biharko dau hitzordua eskatzera. Halanda be, 65 urtetik gorakuak jubilau etxietan be izango dabe txertua ipintzeko aukeria: Beheko Tokian, urriaren 27xan; Untzagako jubilatua etxian, urriaren 28xan; eta Urkikuan azaruaren 3an. Hiru egunetan 17:00etatik 18:00etara ipiñiko dabe txertua eta inguruan bizi diran jubilau guztiak izango dabe aukeria, bardin de-tsa bazkide izan ala ez (aurretik izena emon biharko dabe jubilau etxietan egongo diran zerrendetan).



Minbiziaren kontrako jardunaldixa

Minbiziaren Aurkako Alkartiak antolatuta, eguenian "Minbiziaren aurkako ikerketa eta etorkizuna" izenburukua hasiko da Coliseoan, 18:00etan. Ekitaldixan parte hartuko daben ikertzaile-hizlarixak hauek dira: Marta Puyol (AECC-ko Zientzia Fundazioa), Jesus Bañales (Biodonostia), Maria Lizondo (Santa Creu i Sant Pau Ospitala, Bartzelona) eta Ander Urrutikoetxea (Onkologikoa). Solasaldixa moderatzen Txemi Galarragak jardungo dau. Eta, ekitaldixa biribiltzeko, Goruntz abesbatzak emanaldixa eskinduko dau. Sarrera libria izango da, aretoko toki guztiak bete arte. Eguenian bertan, eguardixan, alkartiak egoitza inauguratuko dau Eibarren, Ardantza kaleko 11. zenbakixan.



URRIAREN 17TIK AURRERA
N KONTRAKO 2016KO TXERTAKETA KANPAINA
65 urteik gora dituztenentzat, gaixotasun kronikoak
dituztenentzat eta haurdun dauden emakumeentzat.

detza
EUSKO JAKINTZAZA
GOBERNUO VASCO
DEPARTAMENTO DE SALUD



Taillarraren helburuak azaldu zittuen aurreko astian.

Nagusi eta zaintzailliendako taillarra

Gizartekintza saillak "Nola zahartu ondo etxean" izenburuari jarraituta lau saio antolatu ditte, nagusixeri eta zaintzaillieri (famelixakueri zein profesionaleri) gai horren inguruko aholkuak emoteko asmuarekin. Taillarraren helburua zaharrak euren etxietan ongi bizi dala azaldu eben aurreko astian egindako aurkezpenian Idoya Sarasqueta Gizartekintza ziñegotzixak, Jaione Azkue Gizartekintza teknikarixak, Elena Iraolagoitia eta Sonia Ulazia Adinduko ordezkariak eta Olatz Mujika Debarreneko OSiko ordezkariak.

Euren berbetan, "taillarra guztiz

praktikua izango da". Hau da, emongo dittuen aholku eta bestelakuak eguneroko bizitzan aplikatu leikiazan adibide praktikuekin batera azalduko dittue. Gazteleraz izango da taillarra eta osasun zein gizarte arloko profesionalak emongo dabe, ordu eta erdiko lau saiotan (azaruak 8, 14, 21 eta 28xan, 16:30etatik 18:00etara, Portalean). Parte hartzeko interesa dakanak 943708440 (Gizartekintza Sailla) edo 686600843 (Adindu Gerontologia Zerbitzuak, Elena Iraolagoitiarengaitik galdetu) telefono zenbakixetara deitu leike.

Naroa Ariznabarreta eta bestiak absolbidu egin dittue

Donostiako epaitegi batek Naroa Ariznabarreta eibartarra eta 2007xan AP-8 autobidian trafikua moziagaitik auzipetutako beste lau lagunak absolbitzia erabagi dau, akusatuen kontrako karguetarako "nahikua proba ez dagualako". Jarrai-Haika-Segi auzixaren harira protesta egitteko moztu eben autopista Saioa Zerain, Ainara Ladron, Aritz Azkona, Asier Alberdi eta Naroa Ariznabarretak eta euren kontrako auzixak luze jo dau, bestiak beste epaiketarako eguna lau aldiz atzeratu ebelako.



Ongi Etorri Berbetan aurkezteko ekitaldixa

Badira aste batzuk Ongi Etorri Berbetan egitasmua martxan ipiñi zala. Harrera eta alkarbizitzarako programaren barri emoteko hainbat jarduera egin dira herriko auzuetan, baiña halanda be, honezkero izena emon dabeneri, zalantzan daguazeneri, informaziño gehixago nahi dabeneri... programia hobeto azaltzeko, datorren eguaztenian aurkezpena egingo dabe, 18:00etan Portalean.

Karmelo Ayestaren hitzaldixa

Datorren astian, eguaztenian hitzaldixa emongo dau Karmelo Ayestak ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuarterean).

"Euskaldun baten hizkuntza bidaia" izenburuari jarraituta, nahi izanez gero, euskeriararen erabilleria errez areagotu geinkiala frogatzen ahaleginduko da horren inguruan liburua idatzi daben zeberioarra.



Ibargain, 101 urte ondoren zabalik


Gaur zabalduko dabe Ibargain tabernia Bittor Sarasketa kalia (Estaziño kale-kantoian), baiña barrixa izanda be 101 urteko historixia dakan tokixan egongo da. Oingo ugazabak kontau deskunez, "Ibargain basarrixan jaixotako Pedro Astigarragak basarriko izenarekin tabernia zabaldu eban Estaziño kalia, 1915. urtian, eta azpixon bere albiak gobernatzeko sagardotegixa". Gerra ostian, 1939xan okindegixa zabaldu eben aurretik gaseosa-fabrikia egon zan tokixan. Eta ointxe, tabernia zabaldu ebela 101 urte eta lokala okindegixa izan zala 59 urte betetzian, "Sutondo okindegi eta kafeterixia zabalduko dogu". Horren harira, gaur eta datorren barixakuan, 19:00etatik 21:00etara DJ Agirrek musikia eskinduko dau eta piskolabisa be emongo dabe, musutruk.

IÑAKI AGUINAGA BASCARAN

(2016-X-12)

"ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN"

Ana Maria, Javier Vicentz eta Gartxot



ATZEGIZALEEI ESKERRAK EMATEKO KANPAINA izango da aurtengoa

Aurreko astean, eguenean, aurkeztu zuten Atzegiren aurtengo sentsibilizazio kanpaina Eibarren, Txolarte elkartearen lekuan. Goiburu modura #KaleAtzegizale izango du aurtengo kanpainak, "keinu txikiak eginda eta jarrera positiboa izanda, adimen desgaitasuna duten pertsonen egunerokoa errazagoa izatea posible egiten duten pertsona anonimo horiei laguntza hori aitortu eta eskertzeko asmoz". Hori dela eta, Eibarko aurkezpena horrela jokatzeko duten "atzegizale" bi gonbidatu zituzten: Yago Rodriguez eta Castor Garcia, Bossa eta Paulaner tabernetako kamareroak. Txolarteko ordezkariak azaldu zuten, "zapatuero 20 bat laguneko taldea batzen gara hemen eta, pixka batean jarduera ezberdinak egiten ibili eta gero, kalera joaten gara zerbait edan eta pintxoren bat jatera eta sarritan joaten gara taberna bi horietara. Batean zein bestean oso ondo hartzen gaituzte beti, oso ondo eta gustora egoten gara eta horregatik gogoratu gara Yago eta Castorrek, kanpainaren aitzakiarekin gure esker ona adierazi nahi diegu, euren moduko jendeari esker gizarte hobea eta "atzegizaleagoa" daukagu eta".

Aurtengo kanpainako protagonistak Laura eta Ander dira: "Kartel zein bideoetan eguneroko egoera arruntetan azaltzen



Aurreko astean aurkeztu zuten kanpaina Eibarren, Txolarte elkartearen lekuan.

Atzegizale Naiz

Jakin barik ere, euren jarrera eta jokabidearengatik atzegizale direnei eskerrikasko emateko txartelak atera dituzte eta, horrez gain, #KaleAtzegizale txapa batzuk ere egin dituzte, "urte osoan egiten diren ekitaldietan, hitzaldietan, ferietan... banatzeko eta, horrela, kanpainari jarraipena emateko".



dira, bata ileapaindegian eta bestea kiroldegian, eta bideoan ikusten diren keinu

txiki horiek desgaitasuna duten pertsonen eguneroko bizitza zenbat hobetu dezaketen erakutsi nahi dute". Mezu hori zabaltzen ahaleginduko dira urriaren 30era arteko iraupena izango duen kanpainarekin eta, besteak beste, 8.000 kartel ipiniko dira probintzia guztian, "Atzegiko familia, lagun eta atzegizalaren laguntzari esker". Ekitaldian emandako datuen arabera, Debarreneko 158 familia dira Atzegiko bazkide, 117 kolaboratzaile daude eta 700dik gora lagun atzegizaleak dira.



Sarean

"Ikusten ez duguna ez da existitzen". Horregatik atzegizale jarrerak ikusgai egin nahi ditugu jarrera hauei balioa emateko eta gizartean orokortzeko. Urte guztian, adimen desgaitasuna duten pertsonen #KaleAtzegizale hashtag-arekin argazkiak bidaltzeko aukera izango dute WhatsApp bitartez. Mikrositean argazki #KaleAtzegizale bat bidaltzeko argibideak daude eskuragarri. Kanpaina bideoak eta #KaleAtzegizale argazkiak ikusteko aukera izango da urte guztian zehar. Sartu #KaleAtzegizale mikrositean (www.atzegi.org/kaleatzegizale).



III. Bazkari Solidarioa



Egoazia eta Aldatzen gobernu kanpoko erakundeek 320 lagun batu zituzten aurreko zapatuan Untzagan egindako bazkari solidarioan. Goizeko 11:00etatik aurrera hainbat ekitaldi izan ziren: merkataritzako produktuak saltzeko postua, Perutik ekarritako txokolatea dastatzeko aukera, umeendako tailerrak eta ipuin-kontalaria... Bazkaria 14:00etan hasi zen eta, bertsolariekin batera, Los Soralucoños-ek eta Mugi Panderoak giroa alaitu zuten.

Eibarko Klub Deportiboak antolatutako Jardunaldi Mikologikoek, bestalde, barixakuan hasita ere zapatu eta domekan izan zituen bere egun handiak. Aranzadikoen laguntzarekin zapatu goizean bildutako espezieak sailkatzeaz gain, perretxikoak dastatzeko aukera bikaina izan zen zapatu arratsaldean eta domeka eguerdian, eskaini zuten pintxo-poteari esker. Baita Dee Versions Eibarko taldearen kontzertuan dantzatzeko ere zapatuan.



XVIII. Jardunaldi Mikologikoak



Miryam Tejada Segovia Bartzelonan bizi den eibartar blogaria da. Bidaiatzeko grina eta kazetaritza uztartzea lortu du adondequieraquevaya.com blogarekin, eta azken egunetan bere izena sare sozialetan ikusteko aukera izan dugu, #BloggeroGold2016 lehiaketako finalera iristea lortu ondoren. Lehiaketa amaitzeko eta irabazlearen izena jakiteko egun gutxiren faltan, Eibarko gaztea eta bide batez blogger mundua hobeto ezagutzeko parada izan dugu.

- Euskal Herrian Kazetaritza ikasketak egin ondoren, nola iritsi zinen Bartzelonara?

2012an Italian Erasmusa egiten nengoenean, mundua esploratzeko dagoela eta oraindik etxera bueltatzeko momentua ez zela ikusita, master bila hasi eta Bidaiari Kazetaritzari buruzko bat aurkitu nuen Bartzelonan. Masterrari esker, nire gustu berdina zituzten lagun berriak egiteaz gain, sektoreko jendearekin harremanak egin eta blogari mundua ezagutu nuen. Bartzelona mila aukera dituen hiria da, dena eskura daukazu bertan. Etorkizunean Eibarren edo Euskal Herrian egon nahi badut ere, Bartzelonak dena eman dit. Bidaiatzeko da nire pasiorik handiena eta gaur egun nire zaletasunekin (kazetaritza, idazketa eta irakurketa) uztartzen dut. Dena dela, ibilbidea ez da erreza izan. Ia urtebete pasa nuen langabezia. Ez nuen aurrean jartzen zitzaidan lehenengo gauza hartu nahi; gurasoen laguntza izan nuen eta azkenean profesional eta pertsonal mailan betetzen nauen zerbaitetan lan egitea lortu nuen: escapadarural.com-en nago lanean eta hor nire lekua izatea lortu dut.

- Nondik datorkizu bidaiatzeko zaletasuna?

Txikitatik hartutako ohitura da. Udako eta Aste Santuko oporretan gurasoekin



#BloggeroGold2016 lehiaketako finalistetako bat da Miryam.

MIRYAM TEJADA SEGOVIA (BLOGARIA):

“Orain dela milaka urte ere baziren blogariak”

Espainia osoa ezagutzeko aukera izan nuen, eta beti oso gustura joan naiz. Nire gurasoek inkontzienteki irakatsi didate bidaiatzeko grina. Pixkanaka atzerria ezagutzeko, berriz, nire gauza izan da. Edozein aitzaki erabiltzen dut hegaldiak bilatzeko eta abentura berri bati ekiteko, Tailandia, Jordania, Croacia... Orain Islandian egon naiz eta han geundenean datorren udan nora joango garen pentsatu genuen. Aldez aurretik planifikatzen baduzu, bidaiatzeko ez da garestia. Udako txartelak nik urtarrilean erosten ditut. Bidaiatzeko batez ere ilusioa eduki behar da eta aurreiritziak etxeko kajoian gorde behar dira. Modu horretan mundua begirada garbi eta irrifartsuarekin miretsi ahal izango duzu.

- Blogarien mundua ezagutu zenuen eta hor jarraitzen duzu buru-belarri, baina zer da blogari izatea?

Ikasketak amaitu nituenean nire bloga zabaltzea erabaki nuen: adondequieraquevaya.com. Kazetaritza munduan nolabait destakatzeko eta egiten nekiena eta nire gogoia demostratzeko modua izan zen, Curriculum Vitae original eta kreatiboa, azken finean. Idazteko zaletasuna txikitatik datorkit. Beti izan dut nire drama guztiak isladatzen zituen eguneroko bat, eta lpurterre ipuin-lehiaketa guztietara aurkezten nintzen (ez nuen inoiz irabazi, jajaja). Beraz, idaztea da gehien gustatzen zaidana. Blogari barrenak ateratzea beste kontu bat izan da. Ordu asko sartu ditut tutorialak eta youtube ikusten. Barcelona Travel Bloggers elkarteak deskubritu nuen, bertako diruzaina naiz eta elkarrizketak diogu. Bidaiak, tailerrak, hitzaldiak... antolatzen ditugu. Denbora asko pasatzen dut eurekin eta benetako lagunak egin ditut bertan.

Oraingoan Elciegon (Errioxan) Marques de Riscalen duen hotelean (Luxury Collection Hotel, 5 izar) gaua pasatzeko txartela (spa + vinoteca + gosaria barne)



eta **El Corte Inglés** **1€**

SALMENTA LEKUAK:
El Corte Ingles / Echeto prentsa
Arriola prentsa / Correos / Isasi
okindegia / Mujika harategia /
Maria Ospital / Otegui / Bolintxo

eta GABONETAKO OTARRA Prezioa: 1€ Zbk:	Gabonetako OTARRA 2.000 €ko balioa duen Otarra Prezioa: 1€ Zbk:	eta Fuskara Fikarles Industria 17 egunetan aurreratu er daiteke www.eta.com
--	---	---

**GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO AUKERA**

2.000 €ko GABONETAKO OTARRA

Blogariak orain dela milaka urte existitzen ziren, itsasoak zeharkatzen zituzten abenturazaleei esker; lurralde berriak deskubritu edo herrialdeak zeharkatzen zituzten euren merkantziak saltzeko. Ibilaldiak papezko koadernoetan idazten zituzten, edo harrietan inskripzioak lagatzen zituzten. Orain, gure belaunaldiak gauza bera egiten du, baina blogen bitartez. Interneten ibilbideak, gomendio gastronomikoak edo aholkuak konpartitzen ditugu eta sare sozialen bidez zabaltzen ditugu. Gainera, helmugen tresna ere bagara: esperientziak lehenengo pertsonan bizitzeko eta partekatzeke kontratatzen gaituzte. Bloggers-ek audientzia zehatz batentzat egiten dugu lan. Nire kasuan, nire blogeko hiztegia oso kolokiala da, beti genero femeninoa erabiltzen dut eta, tontakeria badirudi ere, engantxatu egiten du.

- #BlogueroGold2016 lehiaketako finalista zara eta orain botoak emateko momentua da. Zertan datza lehiaketa eta nola hartu dezakegu parte bertan?

American Express-ek antolatzen duen lehiaketa da eta hau bigarren edizioa da. Bidai bati buruzko 2.000 hitz baino gehiagoko testoa idatzi behar zen. Idatzi nuen, epai-mahaiari gustatu egin zitzaion eta zuzenean 10 finalistetako bat izan nintzen. Sari moduan, 200.000 puntu MR eman zizkidaten, hau da, 1.000 euro, leku bat aukeratu, bertara bidaiatu eta bost post idazteko. Islandia aukeratu nuen eta bueltan irakurleek irakurtzeko eta botatzeko bost artikulua idatzi behar izan nituen. Orain botazio fasean gaude, urriaren 24ra arte, eta



Islandiara egin du azkeneko bidaiaria Miryam-ek.

27an irabazlearen izena jakingo da. Botatziarako mekanika hau da: kategoria bakoitzean (5 daude) 1, 2 eta 3 izarrekin hiru favoritoak botatuko dira. Hau da, "A donde quiera que vaya-k" irabazten lagundu nahi badidazue, <https://www.latitudamex.es/blogueroGold/2016/myriam-tejada/> loturan sartu eta "votaciones" atalean 3 izarrak eman beharko dizkidazue kategoria bakoitzean.

- Zer nolako proiektuak dituzu esku artean?

Buruan ideia pila bat izaten dut eta saltza guztietan sartzen naiz (tailerrak, lantaldeak...) Hala ere, nire anbiziorik handiena blogari moduan hazten jarraitzea eta, batez ere, idazten jarraitzea da. Azken finean, horretarako zabandu nuen bloga. Etorkizunean ez dut baztertzen egunerokotasuna alde batera laga eta urtebete sabatikoa hartzea munduan bidaiatzeko; idaztea maite duen pertsona batentzat erretiro eta ikastaldirik onena dela uste dut.

giltzak
SEGURIDAD

Segurtasun handiko ate berriak betiko profesionaltasunarekin.

Zatoz eta informa zaitez!

www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Arragueta, 3 - Eibar 943 70 13 91

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Sara Leturiaga (waterpolo-jokalaria)

"Baloirik gabe uretan mugitzen jakiteak garrantzi handia du gure kirolean"

Pozarren dago 15 urteko waterpolista. Ez da gutxiagorako, urreko domekan jokatu baitzuen bere historiako lehenengo partidua Urbateko emakumeen taldeak. Horrez gain, Bidasoa talde handia zuten aurrean, iaz Sararen taldea izan zena. Orbean lortutako 10-6ko horrek itxaropena piztu dio Leturiagari: "Saillkapeneko bigarren postua eskuratzeko borrokan sartu gaitezkeela uste dut". Eta dantza egitera joan da, ikasten diharduelako. Igerilekuan egiten duen gogo berarekin.

- Zenbat urte edo denboraldi diharduzu waterpolo praktikatzen hasi zinenetik?

Hiru urte badira dagoeneko. Neba hasi zen ni baino lehenago eta bera ikusita hasi nintzen ni ere lehenengo urratsak egiten.

- Bada denboratxoa Urbaten nesken taldea osatzeko ahaleginean dihardutela. Zu ere kanpora joan behar izan duen horietakoa zara?

Bai, urtebete eman dut Bidasoan eta asko ikasi dut eurekin. Hemen zailtasunak genituen taldea osatzeko eta neure burua behartuta ikusi nuen kanpora joateko. Esperientzia polita izan da. Euskal Herriko Ligatik kanpo, Espainiakoan ere parte hartu genuen. Azken horretan Kataluniako taldeen maila azpimarratuko nuke; gu baino askoz ere aurreratuago daude.

- Hala ere, badira talde mistoak osatzeko aukera ematen duten mailak, ezta?

Infantiletan badago aukera hori, baina kadeteetan ezinezkoa da. Gero kontraesan moduko bat ere bada hor: talde mistoak ezin osatu, baina nesken taldeek mu-

tilenen aurka jokatzeko aukera dute Euskal Herriko Ligan.

- Entrenamenduak mutilekin egiten duzunetakoa zara.

Askoz gogorragoa da, bainamerezi du. Presio handiagoa nabaritzen duzu eta igerian ere azkarrago mugitzea eskatzen dizute entrenamendu horiek.

- Lesio gogorrik izaten duzue waterpoloan?

Batez ere, sorbalda da zaindu behar duguna. Keinu berbera errepikatzen dugu askotan, bai igerian egiterakoan eta baita jaurtitzekoan ere, eta horrek inguruhori kargatzeko arriskua dakar.

- Zelan definituko zenuke waterpolo? Zelako abantailak eskaini dizkizu?

Igeriketa eta eskubaloia uztartzen ditu. Talde-jokoa da eta horrek asko aberasten zaitu, taldekideekin gauzak lortzen ikasten duzu. Eta waterpoloari esker, konturatu barik ia, uretatik irtetzerakoan ere beste elegantzia batekin egiten duzu (ja, ja).

- Golak sartzea ere ederra izango da...

Garrantzi handiagoa du jokoa egiten saiatzeak, uretan ondo mugitzeak baloirik gabe. Defentsan ondo jardutea beharrezkoa da, eta punteria eta indarra lantzea.

- Dantzarekin bateragarri egiteraino.

Zergatik ez? Asko gustatzen zait eta flexibilitatean irabazten duzu, waterpoloan ere mesedegarri bihurtzeraino. Balletarekin hobeto sentitzen naiz.

- Orain zenbat zarete Urbateko nesken taldean? Zein adinetakoak?

Hamazazpi gaude: Gasteizkoak badira, Sorluzekoak, Elgoibarkoak... Eibartarrak hiru gara. Adinari erreparatuz, 1989an jaiotakotik 2003an jaiotakora hartzen du; esparru zabala, beraz.

- Taldeak zer asmo du bere debutean?

Ligan lasai lehiatzekoa batez ere eta, horrekin batera, ikasteko gogoarekin. Bidasoaren aurka lortutakoaren ondoren




itxaropen handia dut. Partidu berezia izan zen zentzu askotan; nire kasuan, gainera, iaz taldekide izan nituen aurka jokatu nuen eta horrek erantzunkizun maila ere igoarazi zidan.

- Zaletuek ondo erantzun zuten? Egia esateko, partiduen ordutegiari begirata, erraztasun askorik ez diezue eskaintzen, ezta?

Asko etorri ziren eta baita animatu ere. Ezin gara kexatu. Ordutegien arazoa zaila da konpontzen, igerilekua ixten den ordutan jokatu behar dugulako. Entrenamenduekin gauza bera gertatzen zaigu: handik irten eta oheratzeko ordua da.





Hiru, bi, bat ... hasi FILMATZEN

Lehiaketan 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte. Bestalde, bideoan 16 urtetik beherako neska-mutilik agertuko baltiz, ezinbestekoa litzateke guraso edo tutoreen baimena izatea. Aurkezten diren bideoak aurten errodatuak, originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira (ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik). Bideoen gutxieneko iraupena minutu batekoa eta 3 minutukoa gehien jota izan beharko da (kredituak barne).

Urtero bezala, ikus-entzunezkoen esparruko adituek osatutako epaimahaia arduratuko da bidalitako lanak ikusi eta onenak zeintzuk diren baloratzeaz. Aurtengo edizioan Aitor Abaroa zinema kritikaria, Maialen Goñi Zinea.eus ataleko arduraduna eta Koldo Almandoz kazetari eta zinemagilea arituko dira epaimahaikide lanetan. Azararen 28an jakinaraziko dute publikoaren saria eta irabazleen izenak abenduan emango dituzte ezagutzera. Sari banaketa ekitaldia, berriz, Donostiako Tabakalera izango da, abenduaren 16an. Azkue Fundazioari esker, lan onenak 1.200 euro jasoko ditu, 300 euro bigarrenak eta, horretaz gain, azararen 10era arte Gaztezulo.eus webgunearen jarraitzaileek gehien bozkatutako bideoaren egileek Ikusleen Saria, Gaztezulo materialez osatutako opari sorta jasoko dute. Informazio gehiagorako gaztezulo.eus helbidean begiratu.

Istorioak irudi bidez kontatzea gustoko baduzue, oraintxe duzue errodatzen hasteko aukera aparta, Gaztezulo VII. Bideo Lehiaketa martxan dago eta. Lanak entregatzeko epea urriaren 7an zabaldu zuen eta azararen 10ean itxiko dute.

Bideoan kontatzen den istorioak Charles Chaplinen 'The Kid' filma abiapuntutzat hartu beharko du, hortik abiatuta honako gaian oinarritutako istorioa jorratzeko: zure eskuetara iristen den mezu batek aurreikusitako planak aldatuko dizkizu. Lehiaketarako lanak WeTransfer bidez (wetransfer.com) bidali behar dira galdizkaria@gmail.com helbidera.

68.000 euro gazteen emantzipazioa errazteko

Herriko gazteen (18 eta 35 urte bitarteko) emantzipazioa errazteko asmoz, etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen udal programa martxan dago eta, deialdia ekainean ireki zenetik, lehenbiziko emaitzak zehaztu dituzte. Gauzak horrela, eta udaletik eman dituzten datuen arabera, "orain arte hogei eskaera onartu dira (bakarra ukatu da, kontratua 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa zelako) eta 26 gaztek etekina atera diote, baita adingabeko batek ere, eskaera egin duen bikote baten alabak, hain zuzen ere".



Eskaera horiei erantzuteko Udalak 68.114 euroko gastua onartu du (2016. urteari dagozkion 29.540 euro eta 2017ko beste 38.574 euro). Orain arte emandako diru-laguntzak hileko 110 eta 275 euro bitartekoak (alokairuaren %50) izan

dira. Edonola ere, deialdia 2017ko azararen 16ra arte egongo da zabalik eta, beraz, diru-laguntzak eskuratzeko interesa duten gazteek eskaerak aurkezteko tarte luzea daukate. Bete beharreko baldintzak eta bestelako informazioa eibar.eus webgunean kontsultatu daitezke.

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)

● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Domekiak gurian gitxitan ikusittako irudixa laga zeskun: Mandiola Goikoa basarriko ardiak mendittik bajau eta herrira, Untzagaraño ekarri zittuen, ume zein nagusixak artaldia bertatik bertara ikusteko aukeria izateko. Debabarreneko I. Gazta Astearen harira antolatu zan ekitaldixa, beste hainbat jarduerarekin batera: aurreko asteko eguenian eskualdeko gaztai ezberdiñekin pintxo-pote berezixa egin zan, barixakuan gazta-dastaketia hartu eban udaletxeko patixuak eta domekan, barriz, azokia eta erakustaldixak egin ziran Untzagako karpan. Gaztaiaren inguruko egitaraua udalak eta Debemen Debabarreneko Landa Garapen Elkarteak, Mireia Alonso sukaldarixarekin lankidetzan antolatu dabe, Debabarreneko artzaintza eta eskualdeko artzaiñak egitten daben biharra jendiari ezagutzera emoteko asmuarekin.

Pozik dagoz Debabarreneko I. Gazta Astearen antolatzailliak, lehen ediziñuak izan daben erantzuna ikusitta. Orohar, egin diran jarduera guztietan jende asko ibilli da eta helburu nagusixa, hau da, eskualdeko gaztagilliak egitten dabena jendiari ikustaraztia lortu dabela pentsatzen dabe. Antolatutako programia pintxo-pote berezixarekin hasi zan eta, parte hartzera animau ziranak Eibar eta inguruan egitten diran gaztai diferentia pintxuetan jateko aukeria euki eben. Horretarako gure eskualdeko sei gaztagillek egindakuak aukeran eskindu zittuen: Haritz Soduperen Egixa ardi gaztaia (Itziar), Enrike Gisasolaren Sosola ardi gaztaia (Eibar), Iñaki Ansolaren Mausitxa ardi gaztaia (Elgoibar), Be-



ARDI GAZTIAK sekula baiño gertuago

ñat Egañaren Goienetxe ardi gaztaia (Mutriku), Nagore Martinen Egotza ahuntz gaztaia (Soraluze) eta Ruben Markinaren Mallegoi behi gaztaia (Mallabia).

Gaztagille gaztiak

Pintxo-potian ez eze, asteburuan zihar be egon zan hórrek ezagutzeko eta euren gaztaiak probatzeko aukeria. Barixakuan egin zan dastaketia Idiazabal Jatorri Izendapena dakan gaztaiarekin egin bazan be, sei gaztagilliak han egon ziran eta euren buruak pixka bat aurkezteko tartia euki eben. Ruben Markinak urtiak daroiaz gaztaiak egitten eta azoketan saltzen, Mallabiko bere basarrixan, Mallegoi izenekuan dittuan behixak emoten daben esnia erabillitta. Izan be, gaztagillia ez

eze esne-ekoizlia be bada eta holako biharretan famelixaren laguntasuna eukitzen dau, gaiñera. Gauza bera gertatzen da Sosola basarriko Enrike Gisasolarekin: modu ekologikuan ardi-gaztaia egittiaz gain, Aizpea Izagirrearekin batera ogixa eta beste produkt natural batzuk be ekoizten dittue. Ogixa egitteko, gaiñera, azken hiru urtietan euren lurretan erein eta auzolanian jaso daben garixa erabilli dabe. Izan be, ekologiko eta naturalak ez eze, egitten dittuenak etxe-etxe-kuak dira.

Mutrikuko Beñat Egaña, barriz, amaren atzetik hasi zan gaztagintzan, oin dala 8 bat urte eta gustora dago etxian ikasittako bi-diari segitzen. Oso bestelakua da Nagore Martin eibartarraren kasua. Berak esanda-



M^a Victoria Urreztik gidatuta, Idiazabal gaztaiak probatzen ibilli ziran.

kuaren arabera, "gaztaia egitteko zaletasuna ez dot etxian edo inguruan jaso, ni horretan hasteko arrazoia ahuntzak maitte dittudala, besterik ez dago. Animaliak eta ahuntzak ikaragarri gustatzen jataz eta, horregaittik, juan nintzan Plaentxira, basarrira bizitzera. Eta behin ahuntzak eukitta, eurak emoten desten esniarekin oso gaztai goxua egitten ikasi dot". Haritz Sodupek be Plaentxiko basarri batian dakaz ardixak, "baiña eurak emoten daben esnia hartu eta gaztaia ltziarren egitten dogu, Egixa auzuan daguan andriaren basarrixan, hortik hartu dau izena gure gaztaiak".

Eta Mauxitxako gaztaiak aurkezpen gitxi bihar dau, lehiaketa diferentietan jaso dittuan premixuak tartian, azken urtietan oso ezaguna egin da eta. Eta horren harira egindako erreportajetan sarritan beste aurpegi batzuk ikusten badittugu be, gaztaiak egitiaren arduria Rosa Mari Salegik dakala argi laga eben: "1981ian, Elgoibarrera ezkondu nintzianian hasi nintzan gaztaiak egitten. Horren aurretik nere suegria ibiltzen zan eta berak lehengo modura, ardixak jaitsi eta jarraixan egitten zittuan gaztaiak. Nik hari segidu ntsan, baiña sasoi barrixak eskatzen zittuenak bete ahal izateko barrikuntzak erabillitta". Gure eskualdeko sei ordezkariak gaztiak dirala azpimarratu eben antolatzailliak: "Izan be, basarri munduan gehixenetan oso gatxa izaten da errelebuia topatzia, baiña Debabarreneko gaztagilliekin ez da holakorik gertatzen, nagusixenak 42 urte dakaz eta".

Idiazabal izendapenaren sekretuak

Mª Victoria Urrestik zuzendutako dastaketiak, barriz, gaztaiak eta bere ezaugarriak hobeto ezagutzeko pista eta bestelako informaziño baliagarria jasotzeko aukeria emon zetsen parte hartzera juandakueri. Urresti, Idiazabal Jatorri Izendapeneko kartzaille ofiziala da eta izendapen horri buruzko kontu interesantiak azaldu zittuan.



Eskualdeko gaztagilliak azokan saldu zittuen euren produktuak. **Maialen**



Gure eskualdian ordezkaritza politta dake gaztagilliak eta, gaiñera, gaztiak dira. **Silbia**

Idiazabal Jatorrizko Izendapena 1987xan sortu eben, "batetik gaztagille eta artzaiñak babesteko asmuarekin, baiña horrekin batera gaztaia jan bihar dabenak be, hau da, konsumitzailliak be babesten dittu, izendapena daken gaztaiak, bestiak beste, osasunkontrol batzuk betetzen dittuela bermatzen dabelako". Idiazabal gaztaiaren oiñarria latxa arrazako ardixak

emoten daben esne gordiñak osatzen dau eta, hortik abiatuta, bakoxtak bere modura egitten dittu gaztaiak, hori bai, izendapenari lotutako bete bihar diran ezaugarriak kontuan hartuta. Epaimahai askotan jarduten daben Urrestik esplikau ebanez, "gaztaiaren usaiña, koloria, zaporía, itxuria, formia... hórrrek guztiak begiratzen dittugu, ondoren puntuaziñua emoteko. Askok kontrakua pentsauko daben arren, gaztaia bat edo bestia aukeratzeko orduan faktore askori begiratzen detsagu, ez dogu itsu-itsuan aukeratzén. Edozelan be, gaztai batzuren puntuaziñua beste batzuren gaiñetik egonda be, horrek ez dau esan nahi nahitaez hobiak diranik, ardaú batekin lagunduta danak goxua dagoz eta".

Azokia eta erakustaldixak

Debabarreneko I. Gaztaia Astea domekan agurtu gen-



duan: 100 bat ardik osatutako artaldia herrixan bisitan eukitiaz gain, Untzagako karpán Debabarreneko Gaztaia Azokan aittatu dittugun sei lagunak euren gaztaiak saltzen ibilli ziran eta, antolatzailliak esandakuaren arabera, "asko saldu eben". Gaiñera, pintxopotian moduan, gaztai ezberdiñak probatzeko aukeria be egon zan, bakoxtarekin egindako pintxo bana raziñuetan salgai euki zittuen eta: holako 175 bat saldu ziralak kontuan hartzen badogu, askok euki eben eskualdeko gaztaiak probatzeko aukeria. Eta egitaraua biribiltzeko, erakustaldixak be antolatu zittuen: ogixa egitteko prozesua zelakua dan erakusteko laba bat eruan eben Untzagaraiño eta, horri esker, ogixa zelan egitten dan ikusiteko aukeria egon zan. Elgoibarko Mausitxa basarriko Iñaki Ansolaren eskutik, barriz, gaztaiak zelan egitten diran bertatik bertara ikusi ahal izan zan; eta artillia lantzeko prozesua, modu naturalian egindako tintaketa barne, erakusten egon zan Ardilanak-eko Miren Torrealday eibartarra. Programia benetan zabalá izan zan eta, horri esker, artzaiñak eta euren biharra sekula baiño gertuago euki genduazen. Duda barik, errepikatze moduko esperientzia edarra.

Liburuak

Publikoa denaren balioa

Ume koxkorra nintzenean liburu bat irensten nuen bi edo hiru egunetan. Noizean behin, gurasoek edo amamak oparitzen zidaten libururen bat, baina haiek ez ziren nahikoa izaten nuen irakurle grina asebetetzeko.

Behin, aldamenekoak esanda Urkiko elizan "liburutegia" zegoela jakin nuen. Elizaren alboko gela batean armairu zahar bat zeukaten liburu beteta. Hura ikusi nuenean benetako altxorra iruditu zitzaidan.

Liburu haiek maileguan hartzen nituen eta irakurri ahala aldatzen joa-ten nintzen ia guztiak irakurri arte. Orduan ez nekien udal liburutegia existitzen zenik ere.

Gaur egun Eibarko liburutegitik hartzen ditut irakurtzen ditudan liburu gehienak. Hartu, irakurri eta bueltatu, txikia nintze-

nean bezala. Baina badaude pertsona batzuk -eta bertan lan egiten dudalako dakit- liburu hartu eta bueltatzen ez dutenak, eta horiek "non grata" izendatzen ditugun pertsona horien artean sailkatzen ditut nik. Eskerrak ez direla ugariak izaten.

Tabernetan edo komertzioetan jartzen duten bezala, "se reserva el derecho de admisión" kartela gustatuko litzaidake ipintzea mostadorean halako pertsonak liburutegiaren onurak disfruta ez ditzaten.

Eibarko irakurle guztion mesederako izango litzateke.

eva alberdi
-UDAL LIBURUTEGIA-



Musika



Iñaki
Zubillaga

Outsider

*"Argitzen ari da... zertarako?
Eguneko lehenengo galdera ederra,
erantzuna ez dakidana.
Benetako munduak jarraitzen du
... eta nahi ta nahi ez argitzen ari da"*

Pentsatzen baldin baduzu bizitzak ez daukala zentzurik, Rafa Berrioren abestiak entzun behar dituzu ideia horiek alde batera lagatzeko. Artista horren bizi-ikuspuntua zeurearen antzerakoa izango da, baina harrapatuta geratuko zara duen erraztasunarekin.

Rafa Berrio donostiarrak bere karrera 1979an hasi zuen UHF taldearekin, Shanti Records, Donosti sound... zenbat urte!!!

Gogo handia, baina emaitza eskasa.

Amor A Traición izan zen bere egitasmu berria. 90. hamarkadako hasieran, *Rock Radical Vasco* pilpilean zegoela, Rafa Berriok eta bere lagunek emozioz betetako proposamena egin zuten hainbat gairekin: amodioa, harremanak, ... Bi disko: "Amor a traición" eta "Una canción de mala muerte".

Milurteko berriarekin *Deriva* taldea azaldu zen. Izen berria, baina Rafa Berrioren eta Iñaki de Lucasen lan eta kontrol osoarekin.



Pop formatoari eusten zitzaien, kitarra eta sekuentziadoreak protagonista bihurtuta. Bi disko atera zituen: "Planes de fuga" eta "Harresilanda". Hitzetan erakusten ari ziren Berrioren bizitzako protagonistak: Donostia, neskak, bakardadea, ...

Hurrengo proiektuan bere barruko esentziak atera zituen Rafa Berriok. 2010ean atera zuen "1971" **kriston diskoa da**. Rafaren hitzak eta Joserra Semperenaren teklatuak eta orkestra moldaketak. 2013an "Diarios" diskarekin formatuari eutsi zion: intimismoa, musika garbia, sinpletasuna, ...

Orain, Rafa Berrioren sentsibilitateak harrapatu ditu bestelako sentsazioak, eta Fernando Neiraren produkzioarekin atera du "Paradoja", pop klasikoari jarraituz: kitarra, baxua eta perkusioarekin. Benetako kamaleoia. Bere musika gozatzeko, diskoa erostetik aparte, www.rafaberrio.com bere web orrian entzun daiteke.

*"Nire bizitzan simulazioan bezala bizi izan naizela,
horren errezeloa daukat.*

Bi aldiz bizitzeko ahalmena eukiko banu bezala.

Alde batera garrantzitsuena laga dudalakoan, prenda gisa.

Eta oraingo bizitza alperrik galduta, zirriborroetan".

Eibarrek bihar 13:00etan jokatuko du Espanyolen aurka Cornellán

Osasunarekin lpuuan astelehenean galdu eta gero, Eibarrek partidu horretan emandako itxura txarra ezabatu nahiko du bihar eguerdian Barzelonan, sailkapenean atzetik duen Espanyolen aurkako neurketan. Qui-



que Sanchez Floresen mutilek partidu bakarra irabazi dute zortzi jardunaldietan (Osasunari eta Iruñan zehazki) eta eibartarrangandik lau puntura daude. Hurrengo jardunaldian, 10.ean, Eibarrek Villarreal hartuko du lpuuan (urriaren 30ean, domekan, 12:00etan) eta azaroaren 5ean Las Palmasen jokatuko du (20:45), handik aste bira Celta hartzeko lpuuan (azaroaren 19an, arratsaldeko 18:30ean).



Jose Esteban eta Sergio Ipiña, Gipuzkoako txapelkunak.

Ipiñatarrek Gipuzkoako txapelkunak golf-ean

Urriaren 2an jokatu zen pitch and putt golf erako binakako Gipuzkoako txapelketa Oñatiko Ireloreko zelaietan eta, jardunaldi bakarrera erabakitako lehiaketan Eibarko bikotea nagusitu zen beste hogeiren aurrean. Golf zelai txikietan jokatzen den modalitatean Eibarko beste bost bikote izan ziren parte hartzen. Ipiñatarrek goi mailan dihardute lehiatzen eta Sergio dugu iazko urte amaierako Eibarko Kirol Sarietako irabazlea golf-ean.

Deporreko pilotariak jardunaldi beteak dute, baina partidu guztiak kanpoan

Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketaren barruan, helduen 2. mailako partiduan Unamunzaga-Lantz bikoteak Lazkaon jokatuko du gaur, 19:00etan, bertako LAPKE taldeko ordezkarien aurka. Gipuzkoako Errendimendu Banakako Txapelketan, bestalde, infantil mailako Camina pilotariak Aretxabaletan izango du partidua, gaur 18:30ean, eta Sanchezek eta Azkargortak Tolosako ordezkariak izango dituzte aurrez-aurre Lizartzako frontoian (gaur 19:00etan). Bestalde, Eskola arteko Txapelketan ez dira geldirik egongo, honako partiduekin: kadeteetan, Arrasateri egingo diote aurre gaur Elgoibarko frontoian, alebinetan Elgoibarren kontra jokatuko dute bihar Mendaron, eta benjaminetan Eibar 2 taldeak Deba 2ri egingo dio aurre, Eibar 1-ek eta Eibar 3-ek euren artekoa izango duten bitartean (azken jaialdi hori Deban bihar 16:00etan).



Azkargorta eta Camina.

Urkuzuako txirrindulariek denboraldiari agur

Denboraldiko irteera guztietarako Urkizuko iturriaren aurrean batzen

diren Urkuzuako txirrindulariek agur esan zioten aurtengoari aurreko zapatuan, ohikoa denez, euren amabitxi duten Dorletako amabirjinari egindako lore-eskaintzarekin. Horren ondoren, azken irteera hori agurtzeko, ondo merezitako bazkarian bildu ziren.



M^a ANGELES ARRIETA MURGOITIO (2013-X-25)

*Hiru urte badira ere gure aldetik joan zarela...
EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO
IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.*

Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba



200 judoka Eibarko bi torneoetan

Zapatukoa egun handia izan zen herriko judokentzat Ipurua kiroldegiko errege-erregin bihurtu ziren egunean. Goizean infantil mailako Eibarko torneooa jokatu zen ehun bat neska-mutilen parte-hartzearekin, tartean Logroño, Hernani, Irun, Zumaia, Azpeitia, Arrasate eta Debabarrenako ordezkariekin. Herriko Kalamua Kluba ez zen motz geratu dominak eskuratzean: Julen Guenaga, Koldo Estenaga, Mikel Redondo eta Eneko Korta urrezkoak izan ziren; Zhe Yi, Irai Garcia, Ze Hao eta Ibai Trokaola zilarrezkoak; eta Alex Jimenezek brontzezkoa bereganatu zuen. "Kirola gosearen aurka" goiburu zuen

lehiaketan hainbat janari kilo jaso zen eta Bergarako elikagaien bankura eraman ziren.

Arratsaldeko saioan emakumeendako Eibar Hiria nazioarteko torneoaren XXI. edizioa jokatu zen infantil-kadete eta junior-senior mailatan, hor ere 100 bat parte-hartzaile inguru zirela. Portugaletik ordezkari-tza zabala etorri zen (Azore uharteak, Montijo eta Almada), Andorratik bertako selekzioa, Errioxatik Calahorra eta Logroño, Aragoiko eta Kantabriako ordezkari-tza zabala, Nafarroatik Anaitasuna eta Erice, Arabatik Calasanz, San Ignacio eta Amurrio, Bizkaiatik Getxo eta Ohisama eta, azkenik, Gipuzkoatik Irun, Hernani, Le-



Atzerritik etorritako taldeen ordezkariak Felipe Zamakola Eibarko Kirol Patronatuko arduradunarekin.

gazpia, Zumarraga eta Arrasate, Kalamuako judokekin batera. Gorengo mailako kirolariak izan ziren gurean tatami gainean, tartean estatu mailako do-

mina asko; hala ere, Nekane Muguruza eibartarra nagusi izan zen bere pisuan, aurkari guztiei ippon bitartez irabazi eta gero.

Kikildu gabeko eibartarrak Hiru Handiei aurre egiten

Aurreko asteburuan jokatu zen bi urtetik behin egiten den Hiru Handiak probaren 20. edizioa. Lehen ekainean egiten zen proba urrira pasatu da oraingoan, baina Gorbea, Anboto eta Aizkorri lotzen jarraitzen du, 5.000 metrotik gorako desnibela gainditzen duen 100 kilometrotik gorako ibilbidean. Zigoitiako Ondategitik irten eta Araiako helmugara egin beharreko bidea 24 ordutan egin behar zuten parte-hartzaileek eta, azkenean, 959 izan dira gai helburu hori lortzeko. Euren artean izan dira Aitzol Jimenez Eibarren bizi den elgetarra, zazpigarren postuan (12 ordu, 16 minutu eta 27 segundo), eta Eibarko Klub Deportiboko beste lau mendizale

gutxienez: Kristina Lopez 465 postuan (19h21'00"), Xarles Arrazola 652.ean (21h05'50"), Miren Gallas-tegi 847.ean (23h06'52") eta Edu Uribe 848.ean (23h06'54").

Iokin Garai Aloña Mendiko oñatiarrak (11h18'25") irabazi zuen zapatuko proba gizonezkoetan, eta emakumezkoetan Leire Martinez (13h31'38") izan zen nagusi. Hala ere, urruti geratu ziren 2012an Iker Carrerak eta 2014an Silvia Triguerosak ezarritako marketatik.

Aitzol Jimenez helmugan, Mendaroko Ander Zulaikarekin. Batera sartu ziren biak, seigarren eta zazpigarren postuetan.



Soraluzeko Ezoizko bolatokian jokatuko da bihar txapelketa

Aurreko zapatuan Barinagan hasi zen 27. Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketak bigarren jardunaldia hartuko du bihar Ezoizian, 17:00etan hasiko den tiraldian. Markinako estrenaldian Azpeitiko Agustin Garzia, Elgetako Juan Txurruka eta Markina Xemeingo Jon Aransolo, hiru-rak sei txirlorekin, nagusitu ziren. Egutegian aldaketa egon da eta, hilaren amaierako eta azaroaren 1eko zubia dela-eta, txapelketa astebete atzeratuko da, azaroaren 12an amaitzeko Elgetako bolatokian.



Eibarko Txirrindulari Elkartearen presidente berriaren bila

Azaroaren 1ean zabalduko du gure herriko txirrindularitza elkarteak presidentziarako hautagaitzak aurkezteko epea, abenduaren 20an amaituko dena. Interesatu guztiek euren datu pertsonalak bidali ditzazkete fax-ez (943-203480), posta elektronikoz (cce@clubciclistaeibarres.org) edo eskutitzez (Pagaegi, 3-behea). Moises Artaetxeberria gaur egungo presidentea bere kargua lagako du urte berriaren hasieran, azken lau urteotan ardura hori eraman eta gero.



Aitor Montero motorzaleak hirugarren amaitu du denboraldia

Eibarko pilotoak podiumean esan dio agur denboraldiari Albaceten jokaturako azken proban. Eraitza horrekin, Montero hirugarren sailkatu da Super Sport 600cc-ko Gaztela-Mantxako txapelketako azken sailkapen nagusian eta bigarrena izan da Master 600 mailakoan. Ez da gutxi Amañakoak lortutakoa, jakinda bi probatan (Nafarroa eta Motor-

land) ezin izan zuela parte hartu. Eibartarra pozik da eskuratutako guztiarekin eta, denboraldia amaituta, esker oneko agertu da lagun izan dituen guztiekin eta, batez ere, babesleekin: "Arantzazu Guridi, Oscar de Castro, Regina Chain, Bea transmisiones, Hogar Ciclos... eta pistan zein pistatik kanpo lagundu didaten beste asko".



Eibarko pilotoak jasotako laguntza guztiak eskertu ditu.

Herriko triatloilariak podiumean Getxon eta Rincon de Soton

Azken aldian txarto ohitu gaituen Delteco Eibar Triatloi Taldeko Pello Osororentzat izan zen Getxoko triatloi olinpikoa aurreko asteburuan; baina ez hori bakarrik, bikoteka Maialen Zamakola eta Ioseba Tamayo hirugarrenak izan zirelako. Podiumetik kanpo, Mikel Las-



kurainek 38. postuan amaitu zuen. Bizkaiko kostaldeko herri horretan, baina sprint modalitatean, Kristina Ruizek zortzigarren postu bikaina eskuratu zuen; Roberto Gartzia 22. izan zen gizonezkoetan eta Igor Etxeberria 94. Eta Errioxako Rincon de Soton jokaturako kros-duatloian Gonzalo Saez inoiz baino hobeto jardun zuen, podiumeko hirugarren mailara igota.

Zamakola eta Tamayo podiumean.

Saskibaloiko Katu-Kalek Kopako finalerdia jokatu du Ipuruan

Kanpoan jokatu arren, aspaldi honetan hobetoen kontrolatu duen partidua eskaini zuen Katu-Kalek aurreko zapatuan Lezon Kurkubiri 44-58 irabazita. Taldeko arduradunek ere horrela aztertu dute eibartarren garaipena eta "jokoan izandako jarraikortasuna" nabarmendu zuten. Atsedendira aurretik joan ziren Katu-Kalekoak (21-29) eta defentsan egindako lan bikainari esker aldeari eroso eutsi zioten. Anderson izan zen saskiratzaille onena (18 puntu). Bihar arratsaldean Kopako finalaren bila kantxaratuko dira Ipuruan Mutrikuri irabazteko asmoz.



Zure enpresa erakusteko leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





KORO BENITO
(poeta)

“Poesia lan bikainak egiten dira, aniztasun handia dago”

Koro Benitok “¿Seré arcoiris algún día?” poema-liburua argitaratu du aurren. Berak auto-argitaratu du lana eta bere emozioen inguruan hitz egiten du. Proiektu honekin bere ametsa “egi” bihurtu duela adierazi du eta ilusioa izanez gero eta norberaren lanean sinetsiz gero, edozer lortu daitekeela azpimarratu du. Liburua salgai egongo da Untzagan, liburu azokan eta bere lan gehiago daude eskura facebooken duen orrialdean (Koro Benito).

- Zein da zure ibilbidea idazle bezala?

Hau nire lehen liburua da, baina betidanik gustatu izan zait poesia idaztea. Gaztetan 300 edo 400 bat egin nituen baina bizitzak aldaketak egitera behar izan gaitu, eta bizitokiz aldatzeak eta beste hainbat kontuk afizioa albo batera lagatzea eragin zituzten. 20 urte geroago, osasun arazo bat zela-eta terapia batzuk egin nituen eta berriz poesiarekiko nuen grina piztu zitzaidan. Aldi berean Maite Lorenzo ezagutu nuen, Eibarko Intzamna akademiako zuzendaria eta hemengo poesia apur bat mugitzen duena. Berak atea ireki zizkidan eta errezeptaldiak egitera gonbidatu, nire lanak ezagutzera ematera... Orduan pentsatu nuen: Eta zergatik ez liburu bat?

- Nolako poemak dira?

Hasieratik nekien ez nuela liburu konbentzional bat egin nahi eta erabaki hori hartuta, poemak nola sailkatu pentsatzeari ekin nion. Hasieran koloreka sailkatzea pentsatu nuen, ostadarraren koloreekin, baina ez ninduen gehiegi konbentzitzen. Momentu horretan ez nago oso ziur nola, baina chakren inguruko informazioa iritsi zitzaidan. Zazpi chakra edo energia puntu ditugu gorputzean eta bakoitzak kolore bat du. Honen inguruko liburu bat erosi nuen eta ikaragarri ondo zetorren nire poesia egiteko moduarekin. Poemek sentimenduekin dute zerikusia. Kolore bakoitza chakra batekin doa eta beraz, chakrari dagokion sentimendu horren inguruan idazten

du. Adibidez, gorria perineoan kokatzen da eta honen emozioa super bizitzea da. Urdina berriz, eztarrian kokatzen da eta honen emozioa adierazpena. Atal honetan adibidez, emakumeenganako indarkeriari lotutako poema bat dut.

- Nolako harrera izan du liburuak?

Ez nuen espero izan duen arrakasta. 300 ale atera ditut eta 200 daude saldu-ta jada. Egia esan, poemak ez dira nobelak bezain erraz saltzen, baina uste dut hori aldatzen joango dela. Orain poesia lan bikainak egiten dira, aniztasun handia dago. Jendea egungo lanak irakurtzen hasten denean, berehala kenduko ditu gainera poesia “aspergarria” edo “zaharkitua” dela esaten duten arreritziak.



ANTZEZLAN musikal berria

Atzo iluntzean estreinatuta zuten "Rarezas sobre otras no tan raras" antzezlan musikala Coliseoan, Ikasten elkartearen eskutik sortu zen La Novena taldekoek. Ernesto Barrutiak moldatu eta zuzendu duen lana jendaurrean estreineko ezarritu aurretik, bezperako entseguak ikusten egon eta gero, baietz atzokoaren ondoren beste emaldi asko etorri.

Maialen

LUDOTEKA berritua zabalik

Lokala berritzeko egin dituzten beharrak amaituta, aurreko barixakuan zabaldu zituzten atea berriz ere Jazinto Olabeiko ludotekak. Horren aitzakiarekin, inaugurazio jaia antolatu zuten eta, eguraldiak lagundu zuela aprobetxatuz, parkean hainbat joko egin zituzten eta dantzarako aukera ere izan zen, "Andonik mugitzen nau" DJ festan.



Maialen



Domekan itxiko da Liburu Azoka

Aurreko barixakutik Untzagan dagoen Liburu Azoka domekara arte egongo da zabalik, goizez 11:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldez 16:30etik 20:30era. Euskadiko Liburu Ganbarak urtero antolatzen duen azokan argitaletxe ezberdinetako liburu eta diskorik berrienak %10eko deskontuarekin erosteko aukera dago eta, horrekin batera, beste lan batzuk prezio berezian salgai ipini dituzte. Asier Muniategi antolatzailearen berbetan, "asmoa jendea liburuetara hurbiltzea, zaletasuna zabaltzea da". Salmenta zein produkzioari buruzko datuekin baikor daude: "Euskal Autonomia Erkidegoan urtean 3.200 liburu ematen dira argitara, azken urteotan ez da jeitsierarik izan eta hori albiste pozgarria da beti". Bestalde, Liburu Azokarekin batera, bertso-paperei eskainitako erakusketa ere ipini dute: "Sasoi batean politika zein beste gai batzuen berri ematen zuten bertso-paperak azoketan saltzen ibiltzen ziren eta erakusketa prestatu dugu horrelakoekin".

"Haurren elikadura osasuntsua" Zaloa Otaduyekin

Haurren elikadura osasuntsua eta kontsumo arduratsua ohiturak zabaltzeko asmoz, hiru saiotan banatuko den ikastaroa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek. Ikastaroaren gidaria Zaloa Otaduy izango da eta, osasuntsu jaten ikastearen garrantziaz hitz egiteaz gain, Zaloarekin haurrentzako osasungarriak eta oso gozoak diren hainbat errezeta ikasteko aukera izango dute ikastarotan pate hartzen dutenek. Zaloaren ustetan, "azukrea kontrolatzen hasi behar gara. Gaur egun umeez azukre asko jaten dute eta epe luzera larregizko kontsumo horren ondorioak ikusiko ditugu". Hori dela eta, azukrerik gabeko janari gozoak prestatzen erakutsiko du Zaloak, bertoko produktuak, ekologikoak eta integralak erabiliz.

Saioak azaroaren 9, 16 eta 23an izango dira (eguztzenak) Portaleko sulkaldian, 19:00etatik 21:00etara, eta izen-ematea urriaren 24tik azaroaren 4ra bitartean egongo da zabalik. Kopurua mugatua izango da eta interesa duten guztientzako irekia izan arren, Berbetan mintzapraktika taldeetako kideek izango dute lehentasuna. Izena emateko 943 20 09 18 telefonora deitu edo elkarte@etakitto.eus emailera idatzi daiteke.



Goruntzekoak Iruñara

Goruntz abesbatzako kideak Iruñara joango dira asteburuan, domekan San Ferminen kaperan ospatuko den abestutako mezan parte hartzeko. Aurreratu digutenez, joango diren eibartarrek eskatuta, Arrateko Ama kantatuko dute. Bide batez, bidaia Iruñako tokirik esanguratsuenak ikustera joateko aprobetxatuko dute.

Idazkera ikastaroa

Untzaga eta Beheko Tokia jubilatuen etxeek sormenezko idazkera lantzeko ikastaroa antolatu dute. Besteak beste ortografia, gramatika eta idatzizko sormena lantzeko hainbat teknika ikusteko aukera izango da. Azaroaren erdialdera haseta nahi dute eta izen-emateko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik (jubilatuek, bulego ordutegian).



Sostoaren Santa Zezilia afaria

Santa Zezilia ospatzeko afaria antolatzen dabilta Sostoa abesbatzako kideak. Azaroaren 26an izango da afaria, Unzaga Plaza hotelean eta joan nahi duenak 35 euro sartu beharko ditu Kutzabankeko 2095 5035 0710 6108 3381 kontuan, izen-abizena zehaztuta. Abesbatzako kideek ez ezik, kide ohiek ere izango dute joateko aukera.



Urriko argazki erakusketak

Klub Deportiboaren eskutik bi argazki erakusketa ikusteko aukera izango da urrian: El Ambigu tabernan Virginia Arakistainen "Londres" izenekoa eta Portalea jatetxean, berriz, Candido Barcoren "Gomas bicromatadas".





IKER ARANBERRI

Trumplinton

Gauzak sinplifikatzea bezalakorik ez dago arazoen benetako muina erabat desitxuratzeko. Askotan esan izan da AEBetako bi alderdi boteretsuenak, alegia alderdi demokrata eta alderdi errepublikarra, gure inguruan aurki ditzakegun ezker eta eskuin aldeko alderdiak bezalakoak direla. Hots, demokratik ezkertiarak eta errepublikarrak eskuinekoak. Uste dut dagoeneko denok dakigula ezin dela hainbeste sinplifikatu, eta bi alderdi horiek, zerbait izatekotan, hemengo eskuina eta ultraeskuina lirakekeela. Buruz-buru dabilta lehian berriz ere bi alderdi horiek, azaroaren 8an izango diren hauteskundeetarako borrokan, bi alderdi nagusien hautagaiak, Donald Trump eta Hillary Clinton epelak esaten elkarri. Eta gure artean ez dira gutxi esaten dutenak Clinton litzatekeela aukera ez hain txarra. Gauzak asko sinplifikatzea iruditzen zait hori. Badakit norbaitek irabazi behar dituela hauteskundeak, eta badakit Trumpek emakumeen, etorkinen eta homosexualen aurka demasak esan dituela, edota nazioarteko politikan oso ikuspegi kontserbadorea, eskuindarra eta belizista duela. Baina ez da ahaztu behar, esaterako, siriarrak edota libiarrek, besteak beste, sufritu izan dituztela Hillary estatu idazkari zeneko bere botere-nahi inperialisten ondorioak.

Ez zaitzatezela engainatu. Ez hartu arnasa lasai Hillaryk irabazten badu, ezta ez kezkatu behar baino gehiago ere Trump gailentzen bada. Espainiako errege katolikoak zirenak bezalaxe, Clinton ala Trump, Trump ala Clinton, biak txarrak eta inor ez on.

Euskararen Foroa aurkeztu da

Martitzenean aurkeztu zuten Euskararen Foroa, Portaleko areto nagusiak hartu zuen ekitaldian. Euskara batzordeburu eta batzordekideak, Euskara teknikaria, planaren dinamizatzailea eta herriko erakunde eta elkarte askotako ordezkariak batu ziren aurkezpenan. Lehen bilera horretan gehienbat Udalbatzak onartu berri duen "Eibarko Hiria. Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025" izenekoari buruzko azalpenak eman zituzten, baina aurrera begira foroak bilera gehiago egitea dago aurreikusita. Azaldu zuten, "Euskararen Plan Estrategikoa aurrera eramateko, Udalak duen ardura alde batera laga



gabe, ezinbestekoa da Eibarko herria osatzen duten herritarrek, elkarteek eta erakundeek konpromiso sendoa hartzea". Horretarako eraiki nahi da, hain zuzen ere, Euskararen Foroa: "Bertan, Eibarren aipa-

tutako plan horrekin neurri batean edo bestean bat egiten duten maila desberdineko ki-deak bilduko dira, maila pertsonalean edota elkarte edo erakunde baten ordezkari gisa parte hartzeko".

Aukeratu dituzte Indalezio Ojanguren Sariak

Aurreko zapatuan bildu zen Indalezio Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketaren epaimahaia Portalean, irabazleak aukeratzeko. Aurtengo edizioan 51 parte-hartzaile izan dira guztira, ho-



Epai-mahaia bere lana egiten.

rietako 15 Eibarkoak. Mamen Mari, Oskar Manso eta Ruben Dominguez epaimahaikideek, aho batez, honako sari hauek ematea erabaki dute:

"Indalezio Ojanguren" Ohorezko Saria argazki bilduma onenari Asier Garagarza Sanchez tolosarrak eraman du, "La espera tiene su fruto" (zuribeltza) izenburukoarekin; Indalezio Ojanguren Sariak, berriz, Mikel Urionaguena (Eibar), Diego Pedra (Cornella de Llobregat), Andres Indurain (Irun) eta Oskar Gaskonek (Irun) jaso dituzte; Euskal Herri mailako sariak Juan Antonio Palacios eta Oskar Baglietto eibartarrek eta Manu Barreiro beasaindarrak eraman dituzte; Eibarko onenak Bakarne Elejalde, Jose Luis Irigoien eta Virginia Arakistain izan dira; eta haurren saria Miren Ereñari eman diote.

Rock gaua Txaltxa Zelaian

Aurreko zapatuan rock doinuak nagusitu ziren Txaltxa Zelaian, Eibarko Musikari Gazteen Elkarteok antolatutako kontzertuei esker eta, entzutera joandakoek primeran igaro zuten gaua, Eroa Naizen, Garrapata eta The Rockos, herriko hiru taldeen musikarekin.



Barixakua 21

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:30. Barixakuak Jolasian. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuaratean).

INAUGURAZIOA

19:30. "Pelota sobre papel", Diego Agudo Pinillaren erakusketa. Portalean.

ANTZERKIA

20:30. "La velocidad del otoño" (Pentacion). 18 euro. Coliseoan.

Zapatua 22

HITZALDIA

10:30. "Haur eramaile ergonomikoak", Kenko-n (Estaziño, 8 behean).

1958-KOEN BAZKARIA

12:45. Talde argazkia. Untzagan.

1956-KOEN BAZKARIA

13:00. Talde argazkia. Untzagan.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Ipuinez ipuin" ipuin-kontakizuna, Maialen Zubeldiaren eskutik. Liburutegian.

LASTERKETA

18:00. IV. Asier Cuevas herri lasterketa. Irteera eta helmuga: Klub Deportiboaren parean.

Domeka 23

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

Astelehena 24

HITZALDIA

18:00. "Nerabeak, etxeko ezezagunak?", Kenko-n (Estaziño, 8 behean).

Martitzena 25

IKASTEN

08:30. Irteera: Labraza-Moreda-Viana. Autobusa Ego Gainetik irtengo da.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

IKASTAROA

17:30. "Kaffe-latte", Dendariak eta Ostalariak Berbetan programaren barruan. Kontent tabernako jangelan.

HITZALDIA

19:00. "Euskaldun baten hizkuntza bidaia", Karmelo Ayestaren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuaratean).

Eguaztena 26

AURKEZPENA

18:00. Ongi Etorri Berbetan egitasmoaren aurkezpena. Portalean.

TOMATE-DASTAKETA

19:00. Tomate-dastaketa saioa, Ortutik Ahora elkartearen eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 27

TXERTAKETA

17:00. Gripearren kontrako txertaketa. Beheko Tokia jubilatutako etxean (Karmen kalean).

IKASTEN


18:00. Dantzaldia. Untzagako jubilatutako etxean.

MINBIZIAREN AURKA

18:00. "Minbiziaren aurkako ikerketa eta etorkizuna". Ikertzaile-hizlariak: Marta Puyol (AECC-ko Zientzia Fundazioa), Jesus Bañales (Biodonostia), Maria Lizondo (Santa Creu i Sant Pau Ospitala, Bartzelona), Ander Urrutikoetxea (Onkologikoa). Moderatzailea: Txemi Galaraga. Itxiera: Goruntz abesbatza. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.



erakusketa exposición
urriak 21 octubre - azaroak 13 noviembre 2016
PORTALEA Eibarko Udala - Ayuntamiento de Eibar

Diego Agudo Pinilla

Erakusketak

Urriaren 29ra arte:

- IBON ARANBERRIEN "Makina eskua da" erakusketa (*Armagintzaren Museoa*)
- JOSE ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades. Un año de fotografía", argazki-erakusketa. (*El Corte Inglesean* -ekitaldi aretoan-)

Urriaren 31ra arte:

- GOTZON IRAZOLAREN perretxikoen munduko argazki-erakusketa. (*Klub Deportiboan*)


Azaroaren 6ra arte:

- ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN lanen erakusketa. (*Topalekuan*)


Azaroaren 13ra arte:

- DIEGO AGUDO PINILLAREN "Pelota sobre papel" erakusketa. (*Portalean*)


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ALEJANDRA, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat amama Arrate eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIREN, gure etxeko printzesak domekan lau urte beteko ditte-eta! Musu haundixak Patxi, aitta eta amaren partez.



Zorionak, AIORA!!, gure etxeko sorgiñak martitzenian bost urte bete zittuan-eta. Patxo haundi bat, potxola, etxekuen partez.




Zorionak, LUKEN, domekan urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi bat amatxo, aitatxo eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIBE Ortuoste, hillaren 18xan lau urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, JONEn partez.



Zorionak, KEPA, astelehenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, IAN, astelehenian bi urte beteko dozuzelako. Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, haraiñegun urtiak bete zenduaz-en-eta. 13 patxo potolo danon partetik!




Zorionak, KEPA, atzo 10 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MIKEL, martitzenian 12 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.

(ANTZOKIAN)
22an: 17:00 (gaztekeraz)
23an: 17:00 (EUSKERAZ)

"Ozzy"
 Zuzendaria:
 Alberto Rodriguez



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
22an: 17:00, 19:45 (Antzokian)
23an: 20:00 (Antzokian)
24an: 20:30

"Un monstruo viene a verme"
 Zuzendaria: J.A. Gª Bayona



(2 ARETOAN)
22an: 17:00, 19:45, 22:30
23an: 17:00, 20:00
24an: 20:30

"No respites"
 Zuzendaria: Fede Alvarez



(ANTZOKIAN)
22an: 19:45 (1 Aretoan), **22:30**
23an: 20:00 (1 Aretoan)
24an: 20:30

"Snowden"
 Zuzendaria: Oliver Stone



(1 ARETOAN)
22an: 22:30
23an: 17:00

"Florence Foster Jenkins"
 Zuzendaria: Andrew Stenton



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igoailuarekin. Tel. 650-156832 eta 646-079423.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 652-532589.
- Bi gelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 603-683176.
- Logela alokagai Eibarren, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Pertsona arduratsua. Tel. 695-716229. Amaia.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Urkizuko dorreetan. 85 m². Tel. 605-206151.
- Garaje marraduna salgai Urkizuko dorreetan. Armairua ipintzeko tokiarekin. Tel. 605-206151.
- Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball-zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Bittor Sarasketan. 15 m². Igoailua eta komunak. Bariantera irteera zuzena. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garajea alokagai Matsarian. 16 m². Sarrera kalearen mailan. Komunak eta autoa garbitzeko gunearekin. Bariantetik zuzeneko sarrera eta irteera. 100 euro hilean, negoziagarria. Tel. 605-742841.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Trastelekuarekin. Tel. 657-715162.
- Eibar erdian ezinhobeto kokatutako kirol-zentroan (Ugan Klub - F. Calbeton, 11) fisioterapia lanetan jarduteko gela alokagai. Tel. 943-820452. Edo utzi mezua: ugan-klub@gmail.com
- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan. Kalera-ko irteera zuzena. Bulego, lantegi edo tailer txikiak aproposa. 70-150 m². Tel. 617-688311.
- 18 urteik gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-235524.
- Gizona eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- 32 urteko emakume arduratsua eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-827655.
- Neska eskaintzen da arratsaldean eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 626-444649.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 675-207301.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 647-276133.
- Neska eskaintzen da arratsaldeetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-823029.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-074529.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-781587.
- Emakumea eskaintzen da 17:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-528936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 673-028698.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-722291.

- Neska eskaintzen da 15:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik aurrera etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Externa. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da zapatu eta domeketan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-381844.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-290237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-234656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako baita dendari jarduteko ere. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-852095. Maria Olivia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntza Geriatrian. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-222798. Jessenia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258341.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 620-461322.

- Neska eskaintzen da 15:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik aurrera etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-802772.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Externa. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da zapatu eta domeketan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-381844.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-290237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-234656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako baita dendari jarduteko ere. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-852095. Maria Olivia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntza Geriatrian. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-222798. Jessenia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258341.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 620-461322.

- Neska eskaintzen da 15:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik aurrera etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Externa. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da zapatu eta domeketan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-381844.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-290237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-234656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako baita dendari jarduteko ere. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-852095. Maria Olivia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntza Geriatrian. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-222798. Jessenia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258341.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 620-461322.

- Neska eskaintzen da 15:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik aurrera etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Externa. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da zapatu eta domeketan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-381844.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-290237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-234656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako baita dendari jarduteko ere. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-852095. Maria Olivia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntza Geriatrian. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-222798. Jessenia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258341.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 620-461322.

4.2. Langile bila

- Mekanizatu bidezko produkzioan hezitako jendea behar dugu. Esperientzia baloratuko da. Bidali kurrikuluma: rrrh@epcge.com

- Artezte makinetan esperientzia duen ofiziala behar da, makina prestatzeko ohitura-rekin. Pieza unitarioak. Lanpostu egonkorra. Bidali kurrikuluma 177 posta kutxatilara (20600 Eibar) edo rectificadorexteriores@hotmail.com
- Sukaldari laguntzaile behar da asteburuetarako jatetxe batean. Bidali kurrikuluma 279 posta kutxatilara (20600 Eibar).
- Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-781942.
- Eibarko enpresa batek artezteile konbentzionala behar du. Bidali curriculum-a: rectificador.eibar@gmail.com
- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ilepaindegi batean. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Gitarra akustikoko klaseak hartuko nituzke astean birritan. Solfeorik gabe. Tel. 699-693821.

5.2. Eskaintzak

- Irakasle-masterra, EGA eta Ingeles ikasketak dituen neska LH eta DBH klase partikularrak ematen ditu. Baita ikaslearen etxean ere. Tel. 657-721050.
- DBH, Batxilergoa eta Heziketa 2. zikloko Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen dira. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- Irakasle-masterra duen neska eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrak emateko. Tel. 699-495279.
- Hispaniar Filologia, BHko masterra eta EGA titulu dituen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. LH eta letretako ikasgaiak, DBH eta Batxilergoa. Tel. 665-741142.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Errepide-bizikleta salgai: Laiz kuadroa, Campagnolo osagarriak, neumatiko berriak (1,60-1,65 altuerarako). 250 euro. Tel. 687-326230.
- Iraultze-taula salgai. Teeter hang ups markako F8000 modeloa. Oso ona. Argibide eskuliburua eta arketen bi DVD-rekin. 280 euro (380 erosi berritan). Tel. 687-326230.
- Piano elektrikoa salgai. Egoera onean. Tel. 658-756514.
- Bikiendako silla eta autoan umeak eramateko bi jarleku salgai. Tel. 616-909630.
- Bikiendako (6 hilabetera arteko neskek) erropa salgai. la berria. Tel. 660-805301.

6.4. Bestelakoak

- Dantza egiteko mutilaren zapatak behar ditut. 44 zenbakikoak. Tel. 676-556739.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gozamina.



Hyundai Tucson Berria.
2016 urteko auto
onena Espainian.

Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berrian apostu desberdina ikusi dutenei esker.

Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean



OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama:
CO₂ Emisioak (gr/km):
119-175. Kontsumo mistoa
(l/100 km): 4,6-7,5

#changeisgood

ABC MEJOR COCHE 2016

Eibarren
berriro

ORAIN "Tipi-Tapa, Korrika"
LAN BERRIAREKIN

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten
BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA

urriaren 17tik 27ra (7'50 euro)

...eta kitto!-n salgai: BAZKIDE BAKOITZAK 3 SARRERA GEHIENEZ

ORDUTEGIA: 10.00-14.00 eta 16.00-19.30

GAINONTZEKOAK

urriaren 28tik
aurrera
(8'00 euro)

El Tío Palancas
(JUAN GISASOLA)
Denetik (URKIZU)
eta Gozoki
(BIBEBARRIETA ETA
SOSTOATARKEN)

azaroak 12

ZAPATUA

16.30 eta
19.00

azaroak 13

DOMEKA

16.00 eta
18.30

PiRRiTx,
PoRRoTx
eta MaRRiMoToTs



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com